

GIPUZKOA 2020

MUGAK ETA AUKERAK

Drucker-ek dioenez, zuzendarien iaiotasuna haien kolaboratzaile/laguntzaileen adimena sustatzen eta, aldi berean, haien akatsak eramaten jakitean datza. Nolabait ere, ondorio bera atera liteke Gipuzkoa gure Probintziako gune fisiko eta politikoan gauzatu beharreko estrategiari dagokionez. Geure mugen aurka borrokatzeko eta ditugun tasunak –izan ere, eduki badauzkagu– sustatzeko gai izan behar dugu.

Estrategiaz hitz egiten den guztietan, botila lepoen antzerakoak diren alderdiak nabarmendu behar dira, hau da, guztia haien inguruan biratzera behartzen duten ondare eskasak. Epe luzera begira, Gipuzkoako gizarte eta ekonomiaren bilakaera, horien baldintzapean egongo da. Darabilgun ikuspegia edozein dela ere, Gipuzkoako bi “*ondare eskasak*” hauexek dira, nagusiki:

- *populazioa*, ez baita hazten, eta, aitzitik, zahartzen ari baita
- lurraldea*, asetasun egoeratik oso hurbil baitago

Gipuzkoa lurralde txikia da, eta beteta dago. Estuegi geratu zaio “jantzia”, eta, azken aldian populazioa hazi ez bada ere, eta ekonomia lehen baino motelago hazi bada ere, ahitze eta asetasun zantzuak ikusgarriak dira. Ikusi besterik ez dugu lurraldetik kanpora lekualdatzen diren enpresa gipuzkoarren kopurua, edo etxebizitzaren salneurriak, Espainiako altuenen artean baitaude.

Gipuzkoa “*hazkundearen mugak*” izenda genitzakeenen aurrez aurre dago; eta hainbati ondo irudituko zaie hori, tartean ekonomista ugari daude, gainera, jarraipenaren ildo oinarritzkoenak mehatxatzen ari den kontsumo gizarteaz kezka agertzen dutenak. Oso urruti gaude une hauetan garapen iraunkorra deitzen den kontzeptutik, eta jakitun izan behar dugu gizarteak, ingurumenari buruzko erretorika bereganatzeko prest egonda ere, ez duela inolaz ere onartu horrek eguneroko jokaeraren aldaketa dakarrela, baita kontsumitzeko eran eta ongizatearen ratioetan ere.

Sortu ditugun itzaropen gero eta handiagoen gizartea izaten jarraitzen du gure gizarteak, eta hori agerian geratzen da bizitzaren edozein alderditan. Etengabe eskatzen diogu bizitzari “*daukagunaz gehiago*” nahi dugula, kontsumoari eta gizarte ongizateari lotutako guztiari dagokionez, batik bat; horixe adierazten dute gure soldatek edo pentsioek, Espainiako altuenak baitira. Gipuzkoako gizarteak bide horretan jarraitzen du, ordainei erreparatu gabe.

Ekonomiari mugarik gabe hazten jarrai dezala eskatzen diogu, eta, horrela ere, gorriak eta beltzak ikusten ditu gizarte horren mailari eusteko, gizarte horren sorkuntzak egunero egiten baititu eskari berriak. Orain arte, teknologia eta zientziaren iraultzari esker, ekonomia beti arriskuaren mugan gobernaturik, eta ireki eta zabaltzen ari zen, eta elkarren arteko aldaketak eta lehiakortasuna sustatzen ari zen munduari esker, lortu egin dugu, guztiz ez bada ere, euste hori gauzatzea. Baina, hazkundearen mugak hor daude, eta datorren belaunaldia izango da, era gordinean, erretorikarik gabe, ***kontsumo handiago edo ingurumen hobearen*** artean aukeratu beharko duena. Ezin baitugu dena eduki.

Horrek estrategiak diseinatzera behartzen gaitu, oztopo horiek haien gain hartu edo konponduko dituztenak. Horretarako, mundua errotik aldatzen ari den ziurtasuna daukagu, aurrera jarraitzeko, eta irekia eta gero eta txikiagoa den munduan lehian aritzeko ***aukera*** berriak sortzen baitira. Bi alderdi nabarmendu nahi ditugu, nagusiki:

-- ***ekonomia berria*** agertzea, jakintza erabiltzea ikaragarri erraztuko duena

-- herrien arteko mugak desagertzea eta ***gune europar handia*** sortzea; bertan, eskualdeek, eta are txikiagoak diren espazioek ere, eginkizun garrantzitsua garatu ahal izango dute, eta erabakitzeke ahalmen handiagoa izango dute.

Aukera horiez baliatzeak hauxe eskatzen du, alegia, gizarte gipuzkoarra orain arte nonahikoak eta ahalguztidunak izan diren botere publikoen eta bizitasun berria nahiz autonomia handiagoa eskuratu dituen gizarte zibilaren arteko ***elkarrizketa berria*** finkatzeko gai izatea. Beste era batez lan egiten ikasi behar dugu, baita bakoitzari dagokion eginkizuna era elkartuago eta demokratikoagoan banatzen ere, eta enpresak berak hasiak dira hori egiten.

geldirik dagoen populazioa

Duela hogeit hamar urtetik hona, eta oso garbia den joerari jarraiki, populazio gipuzkoarrak bizitasuna galdu du. Egoerak ildo horretan jarraitzen badu, hogeit hamar urte barru % 20 murrizturik geratuko da populazioa, hau da, gutxi gorabehera 500.000 biztanle izango ditu Gipuzkoak.

Populazioaren murrizteak, seguruena ***datozen 20 urteetan garrantzi handiena izango duen gertaerak***, oso arazo larriak sortuko ditu, ondokoak kasu:

- langileen eskasia
- pentsio sistemaren porrota
- mota guztietako zailtasun sozialak

Demografia arazoa batuketa arazoa da; hau da, jaiotze tasa jaistearen – gure jaiotze tasak Europako baxuenen artean daude– eta bizi itxaropena luzatzearen batuketa da, eta, horrela, populazioaren pixkanakako zahartzea suertatzen da. Horrez gainera, inmigrazioak dakartzan mehatxua edota aukera daude –ez da erraza bien arteko bat aukeratzea.

Egia da, bestalde, datorkigun etorkizun horren aurrean, bukatutzat eman dezakegula 1975ean hasi zen ***langabezia estrukturala***, 25 urte baino gehiago iraun duen gizartearen gaitza, alegia. Langabeziak aberastasuna eta hazkunderaren potentziala galtzea eragin ditu. Gipuzkoa Espainiako lehenengo probintzia izan zen *per capita* errenta alorrean, berrogeiko eta hirurogeiko hamarkadetan behintzat, eta gaur egun, ordea, hala-holako postuan dago, hau da, taularen erdialdean, gutxi gorabehera. Duela berrogeita hamar urte, Gipuzkoako *per capita* errenta Espainiako batez besteko errenta baino % 60 handiagoa zen; gaur egun, berriz, % 9 handiagoa da, ozta-ozta.

Langabezia, alabaina, gure ekonomia tradizioko industria alorretan espezializatzeko orduan, sintoma da, eta ez kausa; industria alor horiek, izan ere, hazkunde krisiari aurre egin behar izan diote, hirurogeita hamarreko hamarkadan hasita, eta, horrela, lehiakortasun eza agerian uzten dute. Ekonomia itxia zena ekonomia irekia bilakatzea eta espezializatutako industrietatik zerbitzu industrietara igarotzea ez dira traumarik gabe burutu; dena dela, urrats horrek

nolabaiteko arrakasta izan duela esan daiteke. Etorkizunari itxaropentsu begira diezaiokegu. Eta horren adibide argia “Gipuzkoa 2020 Plana” da.

Laurogeita hamarreko urteetatik aurrera, ekonomia suspertzen hasi zen eta aurrerapena izan zuen, nahiz eta suspertzeari ustez eragiten ez zion politika hondamendia nagusi izan. Positibotzat jo dezakegu bortizkeriak hazkundearen etapa zabaltzea galarazi ez izana, horrek adierazten baitu bortizkeriak porrot egin duela bere ahaleginetan, gizarteak ekiteko ahalmena berreskuratu duela, **politikoa denak** ez duela **ekonomikoa dena** guztiz baldintzatzen, eta, azkenik, bereizirik dauden bi ziklo ditugula gure aurrean: bata, ekonomikoa, berreraikitzea eta aurrerapena bultzatzen dituen; bestea, politikoa, gelditzea eta bereizketa bultzatzen dituen.

Gure ekonomia birmoldatu egin da, eta mundura irten da; baina oraindik asko falta zaio prozesua osatu ahal izateko. Itzulerarik ez duen bidea da, hala ere, eta nahiko ziur egon gaitezke bidea osatu arte jarraituko duela. Gipuzkoak merkatu espainiarrera egiten dituen esportazioak salmentak baino handiagoak izatera iristen direnean, une garrantzitsu eta sinbolikoa izango da. Aberastasuna sortzeko gaitasuna eta gure ekonomia nazioarteko bilakatzea loturik egongo dira, era zuzen eta proportzionalen.

Era berean, egoera garrantzitsu eta sinbolikoa da industria alorreko langileen eza nabaritzen hasi izana. Kualifikatutako profesionalen falta izateak gizarteak eta botere publikoek Lanbide Heziketari eman dioten tratamendu kaskarrak bultzatu du. Gipuzkoak, duela 20 urte, industrietatik ateratzen zuen barne produktuaren erdia; gaur egun, ordea, ozta-ozta gaintitzen du kopuru horren erdia. Horrela, bada, nekazaritza eta arrantza –gure gizartea Neolitiko garaietatik horretan aritu bada ere–, eta industria –joan den mendetik aurrera gure bizimodua markatu badu ere– ez dira mende honetan sortutako aberastasunaren ia laurdena ere izango.

Datorrena **zerbitzuen gizartea** izango da, eta, 2020an, populazioaren % 70ek horretan lan egingo du; horrek, bide batez esanda, aldeko eragina izan dezake ingurumenaren arazoan. Hemendik aurrera, orain arte baino askozaz ere zorrotzagoa izan daiteke Gipuzkoa, nahi izanez gero, erasotzaile edo kutsakorra den edozein jardueraren aurrean, babesteko eta kontserbatzeko neurriak ezartzean.

Mende honetako ekonomiaren bultzatzaileak gizarte gero eta ugariagoan nagusi diren bi kezkei loturik egongo dira, alegia, aisialdia eta osasuna; edo, bestela esanda, bizitza luzatzeko modua, eta bizitzaren zati handia jendarteko entretenimenduetan igarotzeko modua (ez nago seguru esan dudana kontraesan

handia ez ote den), adibidez, kirola, turismoa, kultura ikuskizunak, eta abar. Oso esanguratsua da osorik eta loturik, dena adierazirik eta aurrefabrikaturik, ahalegin eta miaketaren beharrik gabe eskaintzen den dibertimenduak lortu duen arrakasta. Horrek, masa kulturaren irizpenetan oinarriturik egon arren, hainbat ate ireki ere egiten ditu, hala nola, izadiaz gozatzea, gutxiengoarena den arte eta kultura jarraitu ahal izatea, taldekoa ez den *turismo berdea* egitea, Gipuzkoako *atout* nagusia den gastronomia hobez gozatzea, e. a. Horrela, gizarteak haren segmentazioa erakusten du.

Bestalde, osasuna alorrean gauzatu den ikerketa –bioteknologia, medikuntza eta farmakoak, kasu– nagusitu den sektorea da, eta orain dela hogeit hamar urte garrantzitsuenak zirenak, hau da, burdingintza eta metalgintza, makina-erreminta edo ontzigintza, adibidez, alde handiz gainditu ditu. Suntsitzen duen ekonomiak sortu ere egiten du. Teknologiak eta lurralde zabaletan aberastasuna hedatu zuten merkatuak haien idulkietatik erortzearekin batera, etorkizuna definituko duten alorrak agertzen hasi dira.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoak 2020. urtea baino askoz ere lehenago lortuko du orain dela gutxi eskuraezina zirudien enplegu bete hori. Eta demografiaren kausaz lortuko du, gainera. Langabezia tasek jaisten jarraitzen dute, lanean ari den populazioa gero eta murriztuago dagoelako; eta horretan zerikusia dauka laurogeiko urteetan hasi zen jaiotze tasaren jaitzierak. Gipuzkoako gizartearentzat, beste edozein gizarterentzat bezala, funtsezkoa da populazio aktiboa ez murriztea, edo behintzat gehiegi ez murriztea; horrela, ongizate egoera izenekoak, besteak beste, hau da, populazio aktiboaren eta populazio osoaren arteko erlazio egokian oinarritzen den babes sistema, mantendu ahal izango da. Tasa horrek baxua izaten jarraitzen du gaur egun, harrigarria bada ere, eta agerian uzten ditu langabezia gainditzea baino zailagoak diren arazoak.

Egia esanda, egungo langabezia tasa (% 8,7) Europar Komunitateko tasatik hurbil dago. Dena den, jarduera tasa –hau da, lanean dihardutenen eta lan egiteko adina duen populazioaren arteko erlazioa– % 53,5ekoa baizik ez da, eta Komunitateko herrialde ugarian erlazioa % 65ekoa baino handiagoa da (EEBBetan, berriz, % 75). Egiatan, gizonezkoen jarduera tasa % 65,3koa da, emakumezkoena, aldiz, % 42,7 besterik ez, oso baxua den portzentajea. Gauza bera gertatzen da langabezia adibide hartuz gero: gizonezkoen langabezia tasa % 5,7koa da –enplegu bete ia–, eta emakumezkoena, berriz, % 13koa, gizonezkoen bi halakoa baino handiagoa.

Datu horiek baieztapen harrigarriaren oinarri dira; alegia, *per capita* errenta baxua daukagu, Europako baxuenetako bat, ez gure produktibitatea hala-

moduzkoa delako, lanean ari den populazioa nahikoa ez delako baizik. Eta hori 1975ean hasi zen industria krisiari eta pairatzen ari garen lan merkatuari lotuta dago, izan ere, oso zaugarriak diren kolektiboak, batik bat, kaltetu ditu zuzenean: gazteak eta emakumeak, alegia. Beste era batera esanda, hazkundea bultzatzeko, garrantzitsuagoa da oinarri produktiboa zabaltzea errendimendua hobetzea baino, besteak beste, errendimendua hobetu egingo delako, eta oinarri produktiboa zabaltzerik egongo ote den zalantzazkoagoa da.

Emakumeek gizonen daukaten langabezia eta jarduera tasa bera izango balute, lanean ari den populazioa 65.000 pertsona gehiagokoa izango litzateke, hau da, % 25 gehiago; eta hori nahikoa izango litzateke Europako Komunitateko batez besteko errenta alde handiz gainditzeko –gaur egun, horren % 93ra bakarrik iristen gara–. 2020. urterako Planaren helburu garrantzitsuenetako batek, hain zuzen ere, horixe izan beharko luke, alegia, ***jarduera tasa % 70era iritsaraztea.***

Hori egin ahal izateko, emakumezkoek osatzen duten enplegu gordailua mugiarazteko gai izan beharko genuke. ***Emakumeak lan munduan erabat sartzea gure gizarteak gainditu ez duen irakasgaia da, eta, aldi berean, gainbehera doan demografiak sortuko dizkigun arazo askoren irtenbidea.***

Hortaz, populazioa zahartzeak ez du lan merkatuan zertan krisirik sortu, eta ez du inmigrazio fluxu handirik ekarri behar, erraza bezain gatazkatsua den irtenbidea, bestalde. Alderantziz, hautabide hori saihestu nahi badugu, ***geurea den lan indarra osorik erabili beharra daukagu.***

Demografia krisiak populazio aktiboa osorik, salbuespenik gabe, mobilizatzerara behartzen gaitu, eta horrek ondokoa esan nahi du:

- ❖ iraupen luzeko langabetuak berriro lanean hastea
- ❖ gazteak lan merkatuan sartzea
- ❖ emakumeak lan merkatuan sartzea
- ❖ 45 urtetik gorakoak birziklatzea
- ❖ lan eskaintzaren eta eskaeraren arteko egokitzapena

Horrek ondorengoa esan nahi du, besteak beste:

- ❖ gizarte soldata eta mugagabeko langabezia sari mota guztiak zalantzan jartzea; langabetuei lanik ez bilatzeko dirulaguntza emateari utzi behar diogu

- ❖ mota guztietako kolektiboen lan birziklatzea, eta Lanbide Heziketa zein Unibertsitatea mundu errealerara egokitzea
- ❖ benetan balio duen egun zatiko kontratua era masiboan erabiltzea, bereziki emakumeak lan munduan sartzea erraztu nahi badugu, garrantzi handiko alderdia baita
- ❖ bizitza aktiboa zabaltzea, eta horretarako, 65 urtetik gorako enplegua sustatzea eta aurre-erretiroa zigortzea (egun egiten ari denaren aurkakoa, hain zuzen ere)

Horrekin guztiarekin, hazkunde eutsiaren eta iraunkorraren eredu ezin hobea lor genezake: jardueraren % 70, alegia, eta hortik % 70 zerbitzuetan arituko lirateke. Gizarte aurreratua izateko formula egokiena.

Arazoaren atzean ezkututzen denak izaera soziala dauka, zalantzarik gabe: jarduera maila ahalik eta altuena mantendu behar da, gizarte honek, berme gisa hartutako oinarriak izugarri ahulak eta, egokieraren arabera, zaurgarriak zirela kontuan hartu gabe, bere buruari eman dion ongizate maila finantzatzeko modu bakarra baita. Pentsioak ez dira koherenteak, ez lan egindako urteak, ez jubilatzeko adina (62 urtekoa baita errealtatean), ezta populazio aktiboak duen pisu erlatiboa aintzat hartuta ere. Horrek guztiak bideraezin bihurtzen du, epe luzera, edozein modutan ere zalantzarria den banaketa sistema, izan ere, belaunaldi bakoitzak aurreko belaunaldiaren pensioak bere gain hartu behar baititu.

Beherantz doan demografiak babes sozialaren sistemaren aurka jotzen du, eta sistema hori atzerabiderik ez duen lorpen edo eskubidea da guztientzat. Sistema bideragarria bihurtzeko, aktiboak eta populazio osoaren arteko erlazioa orekatzeko neurriez gain, beste planteamendu batzuk beharko ditu, seguruena, autonomia eta partzialki pribatua den kudeaketan oinarrituta, hain zuzen ere.

Aurrekontuaren zati gero eta handiagoa pensioak finantzatzeko erabili beharrak zehurtasunez jokatzera behartuko gaitu guztiok, konpromiso berriak hartzerakoan edo lehenagokoak aldatu gabe mantentzean –pentsioak barne produktu gordinaren (BPG) % 18koak ere izan litezkeela kontuan hartu behar da, hau da, egungo portzentajearen bikoitza baino gehiago; besterik ez bada, Hezkuntzako zenbait ataletatik Osasunera guztiz zentzuduna den intsuldaketa egitea aintzat hartu beharko da. Gauza bera esan genezake langabeziari emandako laguntzez (ez da lan eza egongo). Hautatu egin behar da (ekonomian beti hautatu behar da). Eta, inmigrante asko, langabetu asko eta jubilatu asko aldi berean edukitzea errealtatearekin bateraezina da.

Arazoa larriago bihurtzen dute horretan zerikusia daukaten *osasun* alderdiek. Bost urtetan bakarrik, zahartzaroko dementzia duten eta zentro gipuzkoarretan hartuta dauden adinekoen kopurua bikoiztu egin da, eta guztizkoaren % 40 baino gehiagokoa da jadanik. Etorkizun beldurgarria da. Kontuan hartu behar dugu Estatuak ez daukala, adinekoei dagokienez, aukera txikienik ere gainera datorkionari aurre egiteko. Eta familia, belaunaldien arteko bizikidetzaren unitate gisa, desagertu egin da, edo desagertzeko zorian dago.

Arazo horren aurrean, egiatan, egun dauden osasun ohiturak zalantzan jarri beharko genituzke, ez baitago osasun alorrean birtuosismorik egiterik, *bizi itxaropena* antza era mugagabeen luza dezakeen teknologiaren ondorioak bere gain hartuko dituen gizarte antolakuntzarik gabe. Izan ere, 2020. urterako bizi itxaropena, agintarien eta bizirautea lehentasun ez duten hainbat herritarren harridurarako, laurogeita hamar urtekoa izango baita, gutxienez.

Garapen iraunkorrari buruz dagoen irizpidearen antzeko bat ezarri behar genuke. Gizartea hasia da dagoeneko gure aberastasuna handitzen duten baina, era berean, ingurunearekin bateraezinak diren teknologiak baztertzen; modu berean, *bizitza iraunkorrari* buruz hitz egin beharko genuke, hau da, autonomia eta bizi kalitatea luzapen hutsaren gainetik jartzeari buruz –luzapena mendetasunekoa bada, bereziki. Gure garaien adierazgarria da gizarteak, neurri handiagoan botere publikoek baino, eutanasiaren arazoa –aktiboa nahiz pasiboa– mahai gainean jarri izana. Bizitzaren testamentuaren bitartez, pertsona askok eduki nahi dute bizitzearen eta irautearen arteko norberaren *trade off* erabakitzeke erantzukizuna. Izan ere, bizitza luzatzeak ez dauka, berez, balorerik.

Aurreko guztiari lotuta dagoen gaia *inmigrazioa* da. Eta arazo horrek bi sorburu ezberdin dauzka:

- ❖ gure gizarteak zenbait enplegu mota nahi ez izatea, hala nola, eraikuntza, ostalaritza, zaborrak biltzea, adinekoak zaintzea, etxeko zerbitzua, e. a.; horrek lanaren eskaintzaren eta eskaeraren arteko desoreka handia sortzen du
- ❖ pobreak diren gizarteetatik gizarte aberatsetara migrazio mugimenduak egotea; globalizazioaren barruko mugimenduak dira, globalizazioak kapitalaren mugimenduak eta baita populazioaren mugimenduak errazten baititu.

Batzuen ustez, Gipuzkoak 5000 inmigrante gutxienez hartu beharko lituzke urtean bertako herritarrek betetzen ez duten enpleguen eskaintzari aurre egin ahal izateko, eta egungo populazio maila mantentzeko. Arazo izugarria da, errealitatean oso mugatua –eta hitzez adierazita mugagabea– den gizarteratzeko gaitasuna eskatzen baitu; arazo horri etxebizitza, gizarte zerbitzu, hezkuntza eta osasun alorretan, besteak beste, dauden arazoak erantsi behar zaizkio, eta, nola ez, European irtenbiderik ez duen arazotzat hartzen hasia den eta korapilatsua den gizarteratze kulturala aipatu behar dugu.

Hain da korapilatsua ezen, bolada batez, inmigrazioa beharrezkoa den zerbait dela uste izan ondoren, irtenbide endogenoak bilatzen hasi beharko litzatekeela pentsatzen hasi baita. Ez dirudi oso zentzuzkoa denik, langabetuen zerrenda ikaragarri luzeak –iraupen luzeko langabetuak, profesionalki langabezia saria kobratzetik bizi direnak, 15.000 inguru izango dira– eta jarduera maila baxua daukaten kolektiboak –emakumeak, batik bat– izanik, hain korapilatsua den kanpoko irtenbidearen mende egotea. Edo horren eragina ahalik eta txikiena izaten ez saiatzea, behintzat.

Espainiak ez dauka eskarmenturik harrera lur gisa, eta atzerritarren portzentajea ozta-ozta iristen da populazio guztiaren % 2ra; eta, hala ere, arrazakeria agertu da hainbat egoeratan, inmigrazioa eta langabezia tasa izugarri altuak naturaltasun handienez batzen diren bi lurraldetan, Katalunian eta Andaluzian, hain zuzen. Gobernuak aitortu duenez, bi urtetan bakarrik, inmigrante ofizialen kopurua 600.000tik bi milioi izatera iritsiko da. Alemania edo Austria bezalako herri europarretako kopurura, % 11 ingurura, hurbiltzen garenean, beste era batez ikus ditzakegu gauzak, arazo bihurtu den irtenbide gisa, beharbada.

Horren atzetik beste erantzun batzuk sortuko dira. Lehenengoa, inmigrazioa benetan eskaintzen ditugun lanpostuetara bideratzea izango da. Izan ere, herri emigrante bezala –European, bereziki, eta hirurogeita hamarreko hamarkadara arte– daukagun esperientziak erakusten digu herri hartzaileek haientzat egokiena zen moduan arautzen zutela prozesua, eta beti alde zuzeneko kontratuak eginda. Petrolioaren krisia gertatu zenean, Espainiak milioi bat emigrante zeukan Alemanian; ia hiru urtetan, kopurua bosten bat izateraino jaitsi zen. Ez dugu inuzente izan behar: migrazio mugimenduak herri hartzailearen beharren arabera egiten dira.

espazio arazoa

Lurralde edo espazioen geografia ekonomikoa hiru puntu nagusitan oinarritzen da, gaur egun:

- kokagunea eta komunikazio bideak
- esku langile kualifikatuak egotea
- hiriko bizitzaren kalitatea eta haren zerbitzuen eskaintza

Lehenengo puntuari dagokionez, Gipuzkoa Europako komunikazio gune garrantzitsuenetako batean kokaturik dago. Kokagune hori garrantzi handikoa izan da iraganean guretzat, gaur egun ere bada, eta etorkizunean ere garrantzi handikoa izan liteke, logistika plataforma bihurtu ahal izan bagenu, urrutira joan gabe Arabak berak egin duen bezala. Egitate politikoa bera denez, aldea Arabak duen eta, berriz, Gipuzkoak ez duen lurraz baliatzean dagoela suposatuta behar dugu.

Gipuzkoak, lehendabizi industria ekonomia edukirik, eta geroago zerbitzu ekonomia izanda, toki arazo larria pairatu behar izan du beti: ez dago espaziorik. Gure langabezia tasa Europako batez bestekoaren mailara iritsi da jadanik, baina, alde egin duten enpresen multzo bat, besterik ez bada, bertan atxikitzen jakin bagenu, duela asko egon liteke enplegu betea gurean. Hortaz, ditugun toki arazoak funtsezkoak dira, ia beste guztia baldintzatzen baitute – baita etxebizitzaren salneurria ere, Espainiako garestiena, Madril eta Bartzelonako prezioen gainetik baitago—. Ez dugu ahaztu behar espazio ekonomikoaren erakargarritasuna hobetzeko modurik onena industriaguneak eta etxebizitzak eskuratzeko erraztasuna edukitzea dela. Horrela bada, Gipuzkoak aukerak galtzen jarraitzen du, **hazkundeak espazioaren mugaz** topo egiten baitu.

Gipuzkoak ezaxolakeriaz, baita fatalismoz ere, ikusi du enpresek alde egiten zutela, edo hainbat enpresa ez direla etorri, haien hedapenerako lurrik ez zegoelako; eta hori, hain zuzen, azken urteotan berriro dinamizatu den prozesua da. Gurea herrialde txikia da, profil zailak dituena, eta, gainera –hirigintzako edo babeserako arazoak direla eta–, erabilgarri dagoen hiri lur eskasa erabiltzeko mugak jarri dizkio bere buruari, azken batez, guztizkoaren oso portzentaje txikia bada ere.

Hainbat arkitekto eta hirigilek, hiri garapena eta industria garapenaren zati bat *hiri bilbe* izenekoan biltzeko itsukeria erakusten dute, eta ez dituzte

ingurumarietako guneak kalifikatu nahi, edo oso berandu kalifikatzen dituzte, eta horrek espekulazioaren alde jokutzen du, argi eta garbi.

Aldundiak nagikeri nabarmenez eta ekimen ezaz jokatu du horri dagokionez. Gaur egun, hiritarturik dagoen industriarako lurra hurbilen dagoen lurraldean (Araban) baino sei-hamar aldiz garestiagoa da, eta ez dirudi horrek udalerrri edo probintziako agintariei inolako kezka sortzen dienik. Hala eta guztiz ere, eta lurraren kudeaketak daukan garrantzia kontuan hartuta, erabilgarri dagoen espazioaz hobeto baliatzeko modua bilatu beharko litzateke, izan ere, ondasun eskasa bai, baina uste duguna baino zabalagoa baita. Ezinbestekoa da erabilgarri daukagun lurraren *inbentarioa* egitea, aldi berean erreala eta posibilista. Gure benetako muga fisikoak zein diren jakin beharra daukagu, eta lurralde antolamenduaren plangintza irudimen eta larritasun sentimendu handiagok egin behar dugu, *natur guneak* behar bezala babestu behar direla kontuan izanda. Beste guztiak, baina, *hiri lurra edo lur hiritargarria* izan behar du.

Gipuzkoako nekazaritzak, adibidez, hirigintza aldetik duen egoera berrikusi beharko litzateke; izan ere, nekazaritza marjinala da –nekez aurkitzen dira bideragarriak diren 800 ustiategi (Bruselako laguntzak desagertzen direnean, aldiz, askoz gutxiago izango dira)–, eta probintziako barne produktu gordinaren % 1 baino gehixeago besterik ez du ematen. Lehenengo sektorea delakoaren zati handiena bizitzeko gunea baizik ez da, eta bertako nekazaritzaren ustiapena testigantzakoa. Jarduerak garatzeko espazio eza adierazten duten gremioen kexak gorabehera, eta abeltzaintza jarduera nagusia den herrialdean egonda ere, erabilgarri diren belardien erdiek erabilera eskasa dutela esan daiteke, edo behar bezala ustiaturik ez daudela. Ez dago nekazaritzarako lur eskasiarik, aitzitik, soberan ere badago eta. Nekazarien falta da daukaguna, iraungitzeko bidean baitaude. Eta, hala eta guztiz ere, errezelo harrigarria dago landa lurak baliagarriagoa den zerbaitetarako erabiltzeko orduan.

Egoera horren aurrean, ez da harritzekoa Gipuzkoaren hedakuntza probintziatik kanpo gertatzea: Gasteizen eta Legutianon Debagoineko enpresarientzat; Altsasun eta Agurainen, Goierriren hedapen gisa. Gipuzkoak adierazten jarraitzen du haren hedapenak lurraldearen mugak gaintitzen dituela. Horrek esan nahi du gipuzkoar askoren etorkizuna beste latitude batzuetan garatuko dela, historian zehar gertatu den bezalaxe.

Gipuzkoak bi kokagune besterik ez dauka, bere jarduketa esparrua “*luzatzeko*”: bata Araba da, aspalditik erabiltzen ari dena; bestea ez da ia erabili, eta, hala ere, askoz ere egokiagoa da: hain aipatua den Donostia – Baiona

gunea, hain zuzen. Mugak desagertzen hasi dira, eta horiekin batera komunikazio arina edukitzea ia eragotzi duten muga politiko eta kulturalak, eta ondorioz zerbait garrantzitsuagoa sortzea espero behar dugu: ***lurralde antolatua***, alegia, guztion interesak defendatzen dituen eta helburu berak partekatzen dituen.

Nolanahi ere, 2020. urterako Europa federal bihurtzearen prozesua oso aurreratuta egongo da, eta, pixkanaka, geografia ekonomiko berria eratuko da, estatu berean (Italiaren ipar eta hegoaldean) kabitu ezinik sartu diren lurraldeen kohesioa apurturik, adibidez, edo estatu ezberdinetakoak diren lurraldeen arteko interesen komunitatea sorturik, bereziki lurralde ***giltzarria*** izendatu diren horietan. Moteltasunez eta pixkanaka osatuko den prozesua izango da, zalantzarik gabe; mugak, subiranotasunaren sinbolo horiek, ez dira bat-batean desagertuko. Ezin dugu administrazio erakundeek muga artifizialak eraikitzeke orduan daukaten defentsarako gaitasuna gutxietsi. Eta kulturaren islak ere aipatu behar ditugu: Gipuzkoako enpresa batek haren plantetako bat Baiona aldera eramatea erabaki zuenean, ihesa edo traiziotzat hartu zen ia, egintza logiko eta naturatzat hartu beharrean.

Baina, 2020. urtean, historiaz eta traizioz egindako isla horiek, dagoeneko desagertzen hasiak izango direla suposatu behar dugu. Baiona – Donostia gunea Araba baino erronka hobea izango litzateke Gipuzkoarako, ondorengo arrazoiak direla eta:

- ❖ guneak daukan hiri bizitzaren kalitatea
- ❖ aisia, zerbitzuak, merkataritza eta administrazioa elkartuta dauden modua
- ❖ Europarekin duen lotura

Bereziki, baina, Probintziako gune garrantzitsuena eta adierazgarriena, hau da, Donostia buru duen gunea eta azken hamar urteotan beste eskualde guztietan populazioa gutxitzen zen bitartean populazioa gehitzen jarraitu duen bakarra, sustatuko lukeelako. Gero ikusiko dugun bezala, populazioa baino are garrantzitsuagoa da balio handikoenak diren bitartekoak kontzentratzea, ekonomia berriari begira: ikerketa zentroak, laugarren belaunaldiko enpresak, teknologi elkartegiak, finantza zentroak, e. a. Planaren helburu handienetako batek gune hori zerbitzu-hiri garrantzitsua bihurtzea izan behar du, Bilborekin lehia bizian, gainera.

desagertzen ari diren oztopoak

Gipuzkoa populazio txikia duen lurralde gisa deskribatu dugu, are txikiagoa den lurraldean sarturiko populazioa daukana. Baina, traba fisiko horiek txiki-txiki eginda geratuko dira, muga politikoak horretaz ohartu ez badira ere. Izan ere, muga estuak gaintitu ditugu eta ikuspegi europarra hartu dugu, dagoeneko.

Gizateriaren ikuspegia eraldatzen duten ia aldaketa guztiek agerian uzten dutenez, aspaldikoa da prozesu hori. Bide luzea izan da, eta Marko Polo, Guttenberg edo Adam Smith bezalako pertsonaiek jorratu dute bide hori, edo industriaren iraultza, zientzia, kolonialismoa, e. a. ahalbidetu zituzten aldaketa sozialak gertatu dira. Teknologia aldatzeko eta merkatu berrietara irekitzeko prozesua da, mugak gorrotatzen dituen, urrutiko komunikaziorako sistemak asmatzen dituen, eta ezinbestekoak diren finantza bitartekoak sortzen dituen.

Mundua murrizten ari da merkatu unibertsala sortzearekin batera –planeta honetako biztanle gehienak oraindik merkatu horretatik kanpo badaude ere–; etengabe hazten den eta geldiezina den merkatua da. Zalantzan jar ditzakegu oso akastunak diren mekanismoak –kapitalaren mugimenduak, kasu–; edo ohartarazi egingo gaituzte krisi egoeretan egindako politikez –1997an Asian gertatutakoa–; edo prozesua kontrolatzen duten benetako nazioez gaindiko erakundeak sortzeko beharra azpimarratuko da –NMF (Nazioarteko Moneta Funtsa) eta Munduko Bankua era batez baino gehiagoz gainturik daudela dirudi–; baina, prozesuak ez du atzerabiderik, erabakitzekeo gunerik eta antolatzekeo ahalmenik ez duelako, besteak beste.

Prozesua izugarri hazi da, eta Estatu Batuak bezalako nazio batek, edo Europa bezalako nazioen elkarte batek mundu zabaleko ekonomia kontrolatzeko aukera bazterturik utzi du aspaldian, nahiz eta bigarren munduko gerraren ondoren, liberalizazio bidean zegoen munduko merkataritza eratzekeo, Bretton Woods-en hasierako mekanismoak jarri zirenean uste baino urrutiago joan.

Gogorarazi behar dugu, horrek guztiak ez duela inolaz ere adierazi nahi etorkizun hurbilean gure ingurune kultural eta administratiboaren heriotza gertatuko denik. Bertakoa dena eta globala dena batera biziko dira, sortzailea eta originala izango den elkarketan –oraingo garaia ez baita, inondik ere, sustrairik ez duen nazioartekotasunaren garaia–. Identitate ezaugarriak bilatzea edo nonbaitekoa izatearen sentimendua eta mundu osoko eragina jasotzen duen

kultura elkarrekin bizi daitezke arazorik gabe. Jomuga mestizorantz eta ekarpen ugariz osaturiko kultura sinkretikorantz abiatu gara. Munduko herritarrak izango gara, eta, aldi berean, gure kultura erreferentzia nagusia den Realaren jarraitzaileak izango gara, eta ez dugu horretan aurkakotasunik ikusiko.

Gure ekonomia hobeto “*kokaturik*” egongo da, egungo esparru estu horretatik, estatu-naziotik, irten eta eskumen garrantzitsuak – besteak beste, armada eta kanpo politika, teknologia ikerketa, komunikabide handiak, ingurumena, e. a.– bere gain hartuko dituen Europa federaturantz abiatzen bagara. Ez 25 estatu, baizik eta 150 eskualde edo komunitate izango dituen Europar Batasuna.

Gipuzkoak aspaldian baztertu zuen “*barneranzko garapena*” aldarrikatzen zuen eta merkatu espainiarra aukera seguruena bilakatu zuen eredu zaharra. Estatu espainiarrekoa izateak ez du inolako bultzada osagarriarik ematen. Europan, gure nazioan, gaude jadanik, esparru politiko edo administratibo berriaren bila joan beharrik gabe. Onar ditzagun, guztiz, erronka hori eta erronkak adierazten duena. Espainia ordezkaturik izateko zorian dagoen erreferentzia da.

Gaur egungo Estatuak nazio subiranotasuna galduko dute neurri handian, guztiona den moneta eta moneta politika egongo baita, baita guztiontzat jarritako zerga mugak dituen merkatu plataforma ere, eta pertsonak eta kapitalak mugitzeko askatasun osoa dagoen esparru ekonomikoan egongo baitira. Europako Batasunak ezabatu egingo ditu gerrak eta historiak sortutako muga politikoak, egungo estatuak hori azken ondorioetaraino eramateari aurka egiten badiote ere, eta guri axola digu, mugako probintzia baita gurea.

Muga fisikoak baino are garrantzitsuagoa da beste traba batzuk suntsitzea, gu isolaturik mantentzeko lanetan arrakasta osoa izan dutenak, alegia. Hizkuntza, kultura, arraza, kolorea, etniaren oztupoak izan dira. Haien erruz ezin izan dugu elkar ezagutu, ez dugu elkarrekin lan egiterik edo lankidetzan aritzerik eduki. Haien erruz, batez ere, “*ontzi ez komunikatuak*” izaten jarraitu dugu, ez dugu esperientziak partekatzerik izan, leku batean arrakastaz erabilitakoa beste batean jarrita, azkarrago aurreratzeko.

Baina, oztopo horiek ezabatzen hasiak dira, ezaguna den baina dituen ondorio guztiekin oraintsu erabiltzen hasi den teknologiari esker: gaur egun esaten den bezala, “*denbora errealean*” informazioa, datuak eta ezagutza toki batetik bestera lekualdatzeko balio duen teknologia, alegia. Informatika eta

telekomunikazioak bateratzeari esker, ez dago, dagoeneko, lantokian edo etxean isolaturik geratzen den jende kopuru handirik.

Herriek, esparru ekonomikoek, izan dezaketen garapena herri edo esparru horiek lehian aritzeko daukaten gaitasunean, hau da, ikasteko daukaten gaitasunean, oinarritzen da. **Prestakuntzak** garrantzi handia hartu du. Ezagutza eta informazioa dira gaur egun produkzioaren alderdiak. Herrien aberastasuna ez da dagoeneko baliabide naturaletan neurtzen, eta hori berri ona da gurea bezalako herri pobre batentzat, errenta alorrean Espainiako azkenetakoa baitzen, XIX. mendea nahiko aurreratuta zegoenean ere.

Teilhard de Chardin-ek bere liburuetakoa batean azaldu zuenez, gizakia bere buruaz ohartu zen, burmuinak horretarako beharrezkoa zuen tamaina eta konplexutasuna lortu zuenean. Izakiek burmuinetako zelula lotura gehiago eta adimen handiagoa daukate. Konplexutasuna nor bere buruaz ohartzea bilakatu zen.

Teilhard de Chardin-ek, duela hogeita hamar urte baino gehiago, gure gizartearen barruan antzeko fenomenoak gertatuko zela iragarri zuen. Gizakiak haien ezagupenak eta haien esperientziak beste guztiekin partekatzeko gai badira, kontzientzia unibertsala sortuko da. Internet horren guztiaren zantzua da: norbanakoaren sorkuntza baita, baina errealitate birtuala sortzen duten guztion pentsamenduak eta ekintzak sustaturik.

Egia da zibilizazioak, nolabait, horixe bera egin izan duela beti, baita ahozko kultura izanda ere. Horri esker jarraitu dugu aurrera, eta belaunaldi bakoitzak ez du zerotik hasi behar izan. Baina, esperientziak eta ezagutza balore intelektual bilakatzeko gaitasun hori ez zen inoiz egon elkarri emandako aberastasun maila horrekin.

Egungo gizarte aurreratuak lan autonomo eta askotarikoak, hierarkia harremanik eta mendekotasunik gabea den lanak sortutako elkarlanaren eraginaz baliatzen dira –Internet ezagutzen duen edonork egiazta dezake Web guneak ez daukala jaberik ez agintaririk ere–; lan horretan bakoitzak esparru txiki bat garatzen du, gizarteak sintetizatu eta era kolektiboan erabiltzen duena. Hori da **ekonomia berria**, oraindik ere, ekonomiaren harian, garrantzitsua ez den kultura –Estatu Batuetan % 8koa baizik ez da, eta Europan % 4–, baina, tradizioko sektoreei ikuspegi berriak zabaltzeko balio neurtezina daukana. Ekonomia berria ez du antzinakoa desagerrarazten, aitzitik, eguneratu egiten du.

Kultura berri horrek dauzkan abantailez ohartu diren lehenak enpresak izan dira, jakina, eta ikuspuntu bikoitza izan dute: alde batetik, eraginkorragoak

izan daitezke, dagoen informazioa langile guztien eskura jartzen baitute, maila kontuan hartu gabe, guztiek erabil dezaten. Beste aldetik, lan egiteko modu berria sortu behar dute, izan ere, sarean lan egitea eta informazioa partekatzea pertsonak bi mailatan –agindutakoa betetzen dutenak eta agintzen dutenak– banatzen dituen edozein egitura hierarkiko eta zentralizatuaren aurkakoa baita. Organigramak dardarka hasi dira, eta buru eta nagusi ugari desagerrarazi dituzte.

Enpresak, hortaz, funtzionatzeko arauak aldatzen hasi dira, aldaketa hori aintzat hartuta. Taldeak protagonismoa hartu du, bere irtenbideak bilatzen ditu, eta ez dago jadanik lehen agintearen katea zeritzonaren mende. Lehia hain gogorra eta ankerra da, ezen enpresek ezin baitituzte giza baliabideak kontrolatzeko edo agintzeko erabili: garestiegia da, eta ez oso eraginkorra. Beraz, beste modu batzuk bilatu behar dira, esate baterako, informazioa azkar mugitu eta harremanak ugaltzeko askatasuna ematea; barneko hesiak (departamentuen artekoak) nahiz kanpokoak (hornitzaile eta bezeroekikoak) behera botatzea; jendearengan konfiantza edukitzea eta jendeak bere buruari aginteak emateko gaitasuna sustatzea.

Enpresetan gertatzen ari dena, alabaina, luze gabe islatuko da gizarte osoan; horrela, zorrozki kontrolatua izan den etapatik irten, eta botere politikotik askatu egingo da. Botere menderatzailerik izango ez duen gizartea izango da, batez ere prozesua nazioaren mugez haratago joan eta, gaur egun esaten den bezala, global bihurtzen denean. Horrek urduritu egiten ditu politikoak, eta ez arrazoi faltaz, ***gizartearekin moldatzeko era eta moduak errotik aldatu beharko baitituzte.***

elkarrizketarako irekia den administrazioa

Ekonomia berria indarrez sartu da, eta horri esker Administrazioak herria zuzentzeko dituen gabeziak agerian jarri dira; eta, bestalde, oso garrantzitsua den zerbait abiarazteko beharra nabarmendu da, alegia, ***alor publiko eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa berria.*** Horrek izan beharko luke Gipuzkoa 2020 Planaren funtsezko alderdietako bat. Administrazioaren eta gizarte zibilaren arteko harremanak norabide bakarreko bakarrizketa –hau da, boteretik herritarrengana– izateari utzi behar dio, eta norabide anitzeko elkarrizketa – guztiok guztiokin hitz egitea– bilakatu behar du.

Administrazioa nonahi agertzen da gizartearen barruan, eta horren inguruko estrategiei buruz hausnartu behar du. Ordezkatu gabe, agintzeko *New Deal* berria, besteen bitartez aitzindaria izateko, ekimenak sortzeko eta sorkuntza handiagoa bultzatzeko. Etorkizuna edozein dela ere, ez dago jadanik garapen guneak egiterik, edo enpresak dekretuz sortzerik. Diru, laguntza, zergak arintze eta bestelako baliabide tradizionalaz ez dago etorkizuneko esparrurik garatzerik, ezta herri baten ekonomia estrategia bideratzerik ere.

Botereak onartu egin behar du gizartean aldaketa sakona gertatu dela. Gizartea heldu egin da, edo heltzen hasi da, behintzat, eta beste era batez trataturik izatea eskatzen du. Gizarteak ongizate maila altua dauka, erdiko maila kontserbadorea den % 70 horrek bai, behinik behin, eta gehiengoa daukan zentroan egoteko borrokan ari diren alderdi politiko guztien estimua berarentzat da. Bere kasa moldatzeko gai da, bestalde, duela 50 urte baino neurri handiagoan, gainera; baina, asegaitza den segurtasuna eskatzen du, eta Administrazioaren beharra dauka oraindik ere ongizatearen egoera deritzona antola diezaion, finantza oinarri sendorik ez badauka ere. Izan ere, Estatuak ez du jadanik ziurgabetasuna arintzen, sortu egiten du eta.

Gaurko gizarteak *aitzindariak* behar ditu, lehengo gizarteak bezainbat, baina, aitzindari horiek funtzionatzeko beste arau batzuk errespetatu behar dituzte; izan ere, arau horiek irekiagoak eta demokratikoagoak diren, ahalmen zehaztuagoa daukaten eta askotarikoagoak diren ekimenak dituzte. Horretarako, gizarteak antolatzeke, hau da, bere burua antolatzeke daukan gaitasun jaio berria erabili behar du; gaitasun hori ez da oso handia, baina egon badago, Administrazioari gero eta gehiago eskatzea ezaugarri duen gizartearen mendekotasuna eta babesa deigarriak izan arren –*Oliver Twist* eleberriaren protagonistari gertatzen zitzaion bezala–, eta, aldi berean, Administrazioan itxaropen handiegirik eduki behar ez duela jakin arren. Gure gizarte honek ederki ordaindu ditu, eta ordaintzen jarraitzen du, frankismoaren mendean igarotako berrogei urteak, erregimen horrek ekimen soziala indar handiz oztopatu baitzuen, boteretik kanpo funtzionatu ahal izateko.

Hori da, hain zuzen ere, nahikoa aberatsa den gizarteak, berez eta laguntza publikorik gabe, hain oinarrizkoak diren merkataritza ganbarak edo sindikatuak bezalako erakundeak mantentzerik ez izatea argitzen duen azalpen bakarra; horrela, erakundeok aurrekontuetan amarruak eginda –prestakuntza planak– mantentzen dira, eta horiez baliatzen den gizartearentzat nahikoa lotsagarria da. Gauza bera esan genezake aberasteko asmoa daukaten edo asmorik ez duten elkarte anitzez. Mendekotasunaren maila gorena duten eta harrokeria handiz

“*gobernetik kanpokoak*” direla dioten erakundeak dira, Gubernutik dena jasotzea espero baitute.

Hortaz, gizarte zibilaren garapenaren *erdiko aldian* gaude, Administrazioa alderantzizko bidearen erdian dagoen era berean, logikoagoa den dimentsio batetik itzuleran, alegia; eta bi joera horiek oso mantso mugitzen dira. Hasieran, Europak Estatu Batuetako bidea jarraituko zuela uste izan zen, bertan, ekimen pribatua gauza izan baita mota guztietako unibertsitate, museo, opera edo ikerketa zentroak sustatzeko. Seguruena, hori ez da hemen horrelako indarrez sekula gertatuko, Europan, ekimen guztiak hartu eta baliabide guztiak bildu dituen eta edozein kausaren gidaritzza bereganatu duen Leviathana sortu baitugu; gizarteak zergak ordaintzen ditu eta guztia konpon diezaioten itxaroten du, besterik ez.

Estatuak, hala ere, motelegia eta burokratikoegia dela, eta islatuegi dagoela erakutsi du. Estatuak ekimenaren monopolioa galdu eta gizarteak haren ekimenak ugaltu ditu: aberasteko asmorik gabeko enpresak, elkarteak, ikerketa eta azterketa zentroak, esportaziorako kontsurtzioak, *cluster-ak*, e. a. Horrek merkatu ekonomiaren plangintzaren gainetik dagoela adierazten du, eta horren jatorria informazioa biltzeko eta prozesatzeko gaitasunean dago. Merkatu eragileek kontrolatzen ez duten merkatuak monopolioak edo ministerioak baino “*gehiago daki eta lehenago erantzuten du*”; erabaki, kontsumitzaile eta ekoizle anitz hartzen ditu bere barruan; erabakiak prozesatu egiten ditu eskaerak eta salneurriak sortzeko, eta ugaltu egiten ditu erabakitzekeko guneak. Gune horiek autonomo eta aurrez sortutako edozein ikuspegiren mendekotasunik gabeko bilakatzen dira, baita balore aurreiritzirik gabeko, eta, halaber, ez daude norberak nahiago duenaren mende.

Boteretik, horretan espezializatutako eta jendearengandik islatutako erakundeetatik, sortzen diren estrategiek ez daukate jadanik zentzurik. Gertaerak jazotzen ari diren unean, haien aurren erantzuna eman eta sakabanaturik dagoen informazio asko bereganatu beharrak deszentralizazioa, alde batetik, eta autonomia eta kontrolaezina den iritzia, bestetik, bultzatzen ditu. Sorkuntza anonimoa da, askotarikoa, eta aurreikusitako ezin diren arauak erantzuten die.

Zer egin daiteke egoera horretan? Hasteko, komenigarria litzateke Administrazioak egiten duena baino gutxiago egitea, askoz gutxiago. Euskal Herrian, oraindik ere, sortutako aberastasunaren % 40, udalen, aldundien eta gobernuaren arteko nahasketa zehatzezinak kontrolatzen ditu; horrek gaiturik daudela eta eguneratu ez direla adierazten du. Politika beharrezkoa da, zalantzarik gabe, baina zalantzazkoa da politika (eta Administrazioa) hainbeste

behar izatea. Baliabideak askatzen hasi behar du, eta gizarteari azaldu behar dio ez dela denetarako balio duen mirabea; haren zeregina berriro definitu behar du. Egia esanda, sistema publikoak salbuespena izan beharko luke, eta ez araua, ia denetarako.

Alor publikoak atzera jo behar du pixkanaka, eta horretarako irizpiderik onena *finantzatzea eta betearaztea* bereiztea da. Alor publikoaren iritziz, politika jakin bat beharrezkoa izan daiteke, edukiak eta baliabideak definitu ditzake politika horrek, eta horretarako behar diren aurrekontuak onar ditzake; baina, ez du zertan gauzaturik edo betearazirik. Enpresariak, azken urteotan, lehiakortasuna hobetzeko orduan kudeaketa tresna garrantzitsuena den *azpikontratazioaz* egin dutenarekin alde handirik ez dago, eta ekonomian funtsezkoak diren espezializazioa eta lan banaketa alderdietan oinarritzen da. Enpresek azpikontrataziora jotzen dute *kosteak merkatzeko, arreta ez sakabanatzeko eta funtsezkoari heltzeko*. Irizpide horri jarraikirik, era nabarmenean “argaldu” dira enpresak.

Estatuak ere gauza bera egin beharko du. Behin plan, politika edo egitasmoen eskema eta finantzaketa zehaztuta dagoenean, horiek abiaraztea komeni da, espezializatuta dauden egituren, elkarte pribatuen edo, baita ere, lehenago aipatu ditugun “gubernuz kanpoko erakunde” horien eskutan jarrita. Egia esanda, Administrazioak betetzerik dauzkan baino askoz ere eskaera gehiago egiten zaizkio, eta, bere garaian bere gain hartu zituen egintza ugari baztertzen hasiko da pixkanaka, horretan borondaterik onena jarrita eta ondorio eskasak lortuta.

Datozen urteotan, Administrazioak katalizatzaile lana egin behar izango du, besteek betearazteko trebetasuna eduki beharko du. Estatu Batuetako iparraldean, burdingintza edo untzigintzaren krisiek suntsitutako hiri industrialetan –Pittsburg, Baltimore, Boston– ekonomiaren eta hirigintzaren birmoldaketa garatu zen; bertan, ekimen pribatuak zuzendu zuen prozesua, eta gureak baino emaitza hobeak izan zituzten; horiek jarraibideak dira guretzat, eta, ahal den neurrian, horrela jokatu behar dugu guk ere.

Baina, litekeena ote da hori? Eta, hala bada, non daude beharrezkoak diren gizarte bitartekariak? Galdera erretorikoa da; izan ere, Gipuzkoako gizarteak agerian utzi du, zalantzarik gabe, badaukala antolatzeke ekimena, eta badaukala, elkarren artean moldatzeko orduan, taldetan egituratzeko eta erakundeak (pribatuak, jakina) sortzeko joera, hobeto funtziona dezan. Hori da, dudarik gabe, Probintziaren ezaugarri onenetako bat. Ondorengo erakundeak dira horren adibide:

- Merkataritza Ganbara
- Kutxa eta Lankide Kutxa
- hiru unibertsitate pribatu (Arrasate, Ingeniariak eta EUTG)
- Teknologi elkartegia
- enpresa talde handiena (MC) eta erreferentziakoak diren beste enpresa batzuk
- sei ikerketa zentro
- garrantzitsuenak diren cluster-ak (makina-erreminta, ibilgailu industria)
- esportaziorako Kontsortzioak
- atzerriko inbertsioa (Michelin, Aceralia)

Enpresa eta erakunde horietan Probintziaren *jakituria* metatu da: zuzendaritza, esperientzia, kudeaketarako gaitasuna, ekimena, finantza eta giza baliabideak, eta baita *estrategia* ere. Hori da daukagun kapitala, eta hori da gure abiagunea. Gipuzkoako Administrazioak “herriaren alde jarduteko” ideiaz ulertu behar duena hau da, alegia, erakunde horiek guztiek, herria zer egiteko gai edo ezgai den kontuan izanda, adierazten dutena. Gipuzkoaren alde jardun nahi badugu, erakunde horiek funtzionatzen lagundu behar dugu.

Gaurko garaien adierazgarrietako bat “*sarean lan egitea*” deritzona da. Ekonomia guztiz espezializaturik dauden unitateen arabera garatzen da; unitate horiek merkatu nitxo garrantzitsuak aurkitu dituzte, baina, baita ere, sistemaren baliabide guztiak erabiltzen eta egituratzen dituzte, eta zentzua ematen diete. Modu horretan lan egin beharko luke talde horrek. Administrazioak ere gauza bera egin behar du.

Erabakiak hartzeko prozesua eta garrantzi handienekoak diren estrategia aukerak hautatzea Administrazioaren eta lehen Probintziaren “*indar biziak*” izenez ezagunak ziren horien artean elkarrizketa eginda gauzatuko dira, irekia, zintzoa eta emaitzak dituen elkarrizketa, hain zuzen ere.

Atzean geratu dira Administrazioak –ia inori entzun gabe– egin beharrekoa erabaki eta berak ere betetzen zueneko garaiak. Administrazioak entzun egin behar du gaur egun (eta beste batzuek egiten duena sustatu).

Administrazioak egokiera prestatu behar du, gizartearen ekimenak adierazteko aukera izan dezan.

Politika eta administrazioaren arloan, duela 400 urte Elizan gertatu zena jazo da, hau da, gizartearen zati bat bakarrik moldatzen saiatzeko adinako heldutasunera iritsi dela. Babesa baztertu eta norberaren autonomia eskuratzen den prozesua, alegia, azken hitza merkatuak ez, politikak daukala uste dutenen eskandalurako izan arren. Arazoa da politika ez dela horretarako gauza, jadanik ez baitago erabakiak hartzen diren gunean. Egia esanda, gertatzen dena da erabakiak hartzeko gunerik ez dagoela.

Hausnarketa hori, bizi ditugun baldintzak kontuan hartzen baditugu, funsgabea dela pentsa daiteke, aurkakoa sortu baitu, hau da, politika eta administrazioaren inflazioa. Egia esanda, ez dago aurkakotasunik. Arlo publikoaren neurriak gainezka ezarri dira eta, horrela, zeuzkan erronka eskergei aurre egiteko egokitzapen eta gaitasun eza erabatekoa agerian jarri da; banaka-banaka, porrot egiten ari da guztietan: pentsioak eta osasuna nabarmenenak dira, baina zerrenda luzea da: hezkuntza, segurtasuna, ingurumena, e. a.

Ezin bestela izan. Politika egiteko moduak duela 25 urte egiten ziren berberak dira eta. Administrazioa ohitu egin zen gobernu eta lege eskumen guztiak bere gain hartzen, eta, gainera, beste inork eduki ez zitzaan ahaleginak egin zituen. Horrek logikoa irudi lezake ejertzitoaren edo kanpo harremanen alorretan; beste alor batzuetan, ordea, hain logikoa ez izaten hasi da, gaur egun garrantzitsuena den *aldaketaren kudeaketa* alorrean abiatuta.

Politika, hau da, *egintzak gauzaraztearen artea*, boteretik, goitik, zetorren jarduera gisa ulertu izan da beti; hemendik aurrera, aldiz, horizontala izan beharko luke. Betidanik izan da gestio zuzendua eta zuzentzen duena; aurrerantzean demokratikoa eta parte hartzailea izan beharko luke. Gobernuaren kudeaketa ekintza guztiz zentralizatu gisa ulertu izan da, baina, askotarikoa izan beharko luke; inposaketa gisa, eta lankidetzat izan beharko luke; plangintza zorrotza bezala, eta malgua izan beharko luke.

Ez dirudi Administrazioak herriaren ardatza bera bakarrik izaten jarraitzeko aukera daukanik. Gero eta txikiago bihurtzen ari da, eta, aldi berean, zuhurrago izaten ikasi behar du, gutxiago ematen eta gutxiago eskatzen, protagonista ez izaten –batez ere, herritarrek ez baitute horrela izango haien arazo guztiak erakunde publikoren baten esku utz daitezkeen okerreko ideia– ikasi behar du, eta laguntzeko dagoela pentsatzen hasi behar du, bere buruari

laguntzen dionari laguntzeko, batik bat. Administrazioak horien ideiak bideratzeko gauza izan behar du, baliotsuak diren egitasmoak aurkitu eta herritarrekin elkarlanerako formulak proposatu behar ditu. Politikak ezin du inolaz ere funtzionatu *aldez aurreko adostasunik* gabe.

Laburbilduz, litekeena da aurrean ditugun erronkak betikoak izatea; baina, beste era batez aurre egin beharko diegu. Hauek dira erronka horien arteko batzuk:

- ❖ ekonomia berriari heltzeko modua aurkitzea, eta manten daitekeen gizartea birsortzeko jakintzaren kudeaketa erabiltzea
- ❖ gainezka dagoen –baina uste dugun baino zabalagoa den– espazioa irudimenez kudeatzea, eta Baiona – Donostia gunea Europa federatuan zerbitzuetako hiri handia bilakatzeko irtenbide politiko egokiak aurkitzea
- ❖ gizartea zahartzeari eta populazioa jaisteari –daukagun arazo sozial nagusia– aurre egitea, eta, horretarako, inmigrazioaren eragina minimizatu eta, emakumeak lan munduan sartuta, gure populazio aktiboa era nabarmenean handitu behar dugu

Erronka horiei irtenbidea ematea ekimen sozialaren mende dago. Horretarako, Administrazioak bitarteko fidagarriak behar ditu, gaur egun bereziki. Ez dugu zalantzan jarri behar Gipuzkoak bitarteko horiek eduki badituela.

Antxon Perez de Calleja, 2001eko ekaina